

Zein dira behar ditugu bazkide eta hornitzaile nagusiak gure proiektuak funtziona dezan?

Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?

Armairu intelignetea diseinatzeko prozesuan parte hartzen duten hornitzaile nagusiak izateko, hainbat gaitasun eta eginkizun biltzen ditugu. Lehenik eta behin, moda-azterketa eta tendentziak ezagutzeko gaitasuna izan beharko dute, arropa-munduaren kontzeptu berriak eta eraldaketa berriak ezagutzeko. Edozein modan egon daitezkeen hornitzaileekin harremanetan egon beharko dugu, bermatuz haiek beraien produktuak eta diseinuak eskaintzen dituztela.

Bestalde, teknologia digitalen arloan aditua izatea oso garrantzitsua da. Sentsoreak, informatika, eta programa-izaera duten gaitasunak baliatuko dituzte armairuak funtzionatzeko. Hauek erabiltzen dira erabiltzailearen gustuetara egokitutako arropa gomendatzeko eta katalogoan gorde diren datuak kontuan hartu eta kudeatzeko.

Proiektuaren hornitzaile gisa, gure aukerak dira IKEA eta APPLE. IKEArri eskatuko diogu armairuak diseinatzeko, beren praktikotasuna eta diseinu aukeraketa zabala dela-eta. Armairuak praktikoak, estilo modernoak eta mugikortasuna izango dute, gure proiektuko helburuak betetzeko. Bestalde, APPLERI eskatuko diogu armairu bakoitzean jarriko dugun pantaila (APPLEko tablet bat) hornitzeko, teknologia eta interfaze erabilgarria eskaintzeko, erabiltzaileekin konektatzea erraztu eta esperientzia hobetzeko. IKEA eta APPLE bezalako erreferenteekin lankidetzatza, gure armairu inteligneteak estiloz eta teknologiarekin bat egiten duten modan kokatuko ditugu.

Gure proiektuarentzat, gu bazkideak izanda, hornitzaile hauek garrantzitsuak dira, haien lanak bateratzeak bideragarritasuna eta eraginkortasuna eskaintzen dielako proiektuari. Haizea del Barriok moda-azterketak eta tendentziak ezagutzen ditu, Amair Garcia de Vicuñak teknologia digitalen arloan esperientzia handia du, Telmo Blazquezen sentsoreak

eta informatikari buruz ezagutza handiak dauzka, eta Izaro Zenarruzabeitiak harremanetan egoteko eta negoziatzeko gaitasuna izango du, hornitzaileekin harremanetan egoteko.

Guretzako guzti hori garrantzitsua da, izan ere, armairu inteligenteak beharrezkoak dira eguneko errutina sinplifikatzeko eta moda berriak jarraitu ahal izateko. Horrez gain, kalitate handiko lanak egin behar dira, teknologia eta moda munduak nahitaezko gisa bateratzeko. Bazkide eta hornitzaile hauek elkarlanean aritzeko gaitasuna oso garrantzitsua da, proiektua arrakastatsu bihurtzeko.

Hala ere, ezinbestekoa da arreta jartzea haien ideiak bateratzeko eta elkarlanean egiteko, bai teknologiarne arloan bai moda eta diseinuan. Guzti hori lortzeko sortutako sinergia erakargarria izango da, eta armairu inteligentea eguneroko erabilera erraztu eta inolako arazo gabea izatea ahalbidetuko du.